

Batxilergorako matrikulazioa

Apirilak 23ra bitartean zabalik dago Ikastolako batxilergoan izena emateko epea. Info gehiago [hemen](#). Zabaldu mezua!



Elkartasuna Ikastolen alde

Oporren aurretik gonbidapena egin genizuen Euskal Herriko Ikastolen proiektuaren alde ekarpena egiteko TANTA ekimnearen bidez. Familie batzuek dagoeneko zuen elkartasuna adierazi duzue, eta gainerakoei berriro ere dei egin nahi dizuegu zuen atxikimendua agertzera. 5€ko elkartasun txartelen truke erosleek 60.000 EUROko zozketa batean hartuko duzue parte, [inprimaki](#) hau bete. (Info+)



Pausoka elkarteari ekarpen solidarioa

Oporren aurretik LH 6ko ikasleek azoka solidarioa antolatu genuen, eta Pausoka elkarteko Idoiari eman genion bertan bildutako dirua. Gainera, gure galderei erantzunez, Idoiak kontatu zigun Pausoka elkartea zailtasun fisiko edota psikikoren batekin jaiotako haurren familiek sortu zutela eta gaur egun 60 familiek osatzen dutela. Haur hauek dituzten zailtasunei erantzuteko, fisioterapia, logopedia, psikologia eta terapia okupazionalako arloak lantzen dituzte Hernanin eta Urnietan dituzten egoitzetan. Gastu ia guztiak familien kargu geratzen direnez, oso pozik hartu dute gure ekarpena.



DBH 3ko ikasleok piragua-ikastaroa hasi dugu RCNSS elkartearen eskutik, eta apirila eta maiatzean jarraituko dugu. Gainera, lehen saioetan eguraldi bikaina izan dugu piraguan ibili eta Donostiako paisaia ederrenaz gozatzeko.

Berrikuntzak Soroan

Hau sorpresa hartu duguna oporren bueltan! Soroako Atariko lurrean jolas desberdinak aurkitu ditugu eta argazkietan ikus dezakezuen bezala arrakasta handia izan dute. Ederki pasa dugu!



Musika eta Dantza Eskola. Emanaldirik egin ezin dugun arren, [hemen](#) duzue LHko aurtengo dantza-ikuskizuna. Faustino Aranzabal eta Maria Perezen eskutik prestatu dugu 1. mailatik 6. mailarako ikasleok Xabi Solanoren "Bidasoatik haratago" abestiaren koreografia.

OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Basoeskola. HH5A-B (Ainere-Miren) goizpasa, apirilak 21. HH5C-D (Amaia-Ixiar) goizpasa, apirilak 23.
- **LH4:** San Telmo Museora irteera. Goizpasa. Apirilak 22 (A eta C) eta apirilak 23 (B).
- **LH5:** Heziketa afektibo sexualako saioak. Apirilak 19-20-21.
- **LH6:** Bakeolako saioak A eta B taldeetan. Apirilak 20.
- **DBH3:** Piragua-ikastaroa. Apirilak 19 (A taldea).
- **DBH4:** Sexu heziketa. Apirilak 21.
- **Groseko Haurtxokoa & Gazteleku:** Apirileko [programazioa](#).

